

1- Indarkeria matxista: Erakunde arteko Mahai Teknikoaren bileraren berri ematea

Pasa den astean burutu zen indarkeria matxista bizi duten emakumeei arreta hobetuzko emateko Koordinazio protokoloaren Erakunde arteko Mahai Teknikoaren urteko bilera. Bertan bildu ginen Osakidetza, Ertzaintza eta Hernaniko Udaleko (Zerbitzu Sozialak, Udaltzaingoa eta Berdintasun Arloa) kideak.

II Protokoloan jasotzen da, Zerbitzu Sozialetan bilduko direla indarkeria matxistaren inguruko datuak, horien berri emango zaiola Berdintasun Arloari eta azken honek urtero txostena egin eta aurkeztuko duela Mahai Teknikoan. Txostena eranskinetan jasotzen da. Informazio dezente jasotzen da, 2020 urteari dagokiona eta aurreko urteetako datuen konparazioak.

Laburbilduz, urte arraroa izan da 2020a. Konfinamendu garaian geldialdi moduko bat egon zen, etxetik ezin ateratze horrek asko baldintzatu zuen emakumeen egoera eta laguntza eskatzeko aukerak mugatu. Ondorioak orain hasi dira ikusten, urte hasierarekin batera kasu asko iritsi baitira Zerbitzu Sozialetara.

2020ko datuen txostena aurkezteaz gain, bilera baliatu genuen formazio saio bat jasotzeko, zehazki indarkeria matxistaren terminologia errepasatzeko, eta 2/2015 Foru Arauan definitzen den moduan. Hortaz, Indarkeria matxistaren aterkipean, indarkeria sexista sartuko litzateke (emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten dutena) baina baita beste indarkeri mota batzuk ere, LGBT+ pertsonen pariraten dutena, sexu/genero/sexualitatea eskema tradizionaletik at egoteagatik sufritzen dutena.

Azkenik aipatu, 2021 urtean berriz ere protokoloaren balorazioa egitea dagokigula. 2019an indarkeria matxista bizi zuten hainbat emakume elkarrizketatu ziren, oraingoan erakunde bakoitzarekin erronda bat egingo dugu, beste erakundeekiko koordinazioan hutsune nagusiak non dauden identifikatzeko eta hobetzeko asmoz. Alderdi politikoeekin ere jarriko gara harremanetan zuren ekarpenak jasotzeko. Eskolekin gaia lantzen hasi nahiko genuke aurtengoan baita ere.